



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko uztailaren 1a

50 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Estatistikari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarriei buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).
- Ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena, Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Mozioa, Tuterako Nafarroako Jaialdien programaziotik at utzi dutelako haserrea agertzeko. Osoko Bilkurak baztertua (17. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Historia Naturaleko Museoa jartzeko eraikinen bat egokitu dezan. Osoko Bilkurak baztertua (17. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Irunberriko ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat ireki dezan. Osoko Bilkurak baztertua (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Haritzak markatu eta botatzeko irizpideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Gainditu dutenen zerrenda (20. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Akats zuzenketa (20. or.).

E SAILA:

Bestelako Testu Arau-Emaileak:

—Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000). Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (21. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Estatistikari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Estatistikari buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoarekin bat, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Estatistikari buruzko Foru Legea

Espainiako Konstituzioaren 149.1.31gn. artikulua Estatuari bakarrik dagozkion eskumenen artean "helburu estatalerako estatistika" sartzen du.

Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legeak 1945eko Estatistikari buruzko Legea ordezkatu eta helburu estatalerako funtzio estatistikoa arautu zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 44.21 artikulua Nafarroari bakarrik dagozkion eskumenen artean "Nafarroarako interesgarria den estatistika" ezartzen du.

Foru Komunitateko Administrazioan funtzio estatistikoa jada bide luzea egin du, bi hamarkada gainditu ditu eta. Foru Diputazioak Estatistika Zerbitzua sortu zuen 1974. urtean. Zerbitzu horri, besteak beste, estatistika alorreko lanak eginarazi zizkion. Lan horiek hasiak ziren ordurako Ogasun Zuzendaritzako Idazkaritza Teknikoan.

Nafarroako Administrazioen unitateek estatistika lan ugari eginak dituzte.

Jarduera konplexu bati buruz eskumen eremu eskusibo bat izateak, zeinetan bat egiten baitute eskubideak eta betebeharrak, kautelak eta arauhausteak, antolamendu eskariak eta plangintza,

e.a., erregulazio egokia eskatzen du, bai eta antolakuntza zehatza izatea ere.

Azaroaren 25eko 522/1991 Foru Dekretuak eskari honi erantzuten zion, aldi baterako baldin bazen ere. Izan ere, zioen adierazpenean honako hau agertzen zen: "Harik eta behar den Foru Legearen bitartez gure Foru Komunitateko estatistika jarduera arautu arte, bidezko da oraingoz aipatu jarduera arautzea Foru Dekretu honen bitartez".

Hainbat komunitate autonomok jada arautuak dituzte beren estatistika jarduerak.

Honako Foru Lege honen egitura Hasierako Titulu batek eta lau tituluak osatzen dute.

Hasierako Tituluak zehazten ditu Foru Lege honek arautzen duen estatistika jardueraren helburua eta aplikazio eremua.

I. Tituluak zehazten ditu estatistika jarduera arautu behar duten printzipioak, bertan parte hartzen duten agente desberdinen eskubideak eta betebeharrak finkatzen dituelarik. Era berean, estatistika jardueraren plangintza prozedurak finkatzen ditu. Hala eta guztiz ere, ez du erregulazio eremua agortzen, zeina osatu beharra egonen baita Nafarroako Estatistika Planari buruz aterako diren legeen bitartez.

II. Tituluak Nafarroako Foru Komunitatearen Estatistika Sistema arautzen du. Sistema hori ondoko hauek osatzen dute: Nafarroako Estatistika Institutuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluak eta Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen eta erakunde autonomoen eta haien menpeko enteen estatistika unitateek. Estatistika Sistema hau sistema koordinatu bat da estatistika jardueraren plangintzari dagokionez, bai eta definizio, kode eta izenen erabilpenari, lurraldeetako estatistika unitateei eta beste alorrei dagokienez ere, baina informazio estatistikoa ekoizpenean eta zabalkunde argi deszentralizatua dago.

Titulu horretan xedatutakoari lotuta "Nafarroako Estatistika Institutua" sortu da, Nafarroako Foru Komunitateko Estatistika Sistemaren gunea dena. Institutu horren esku dago Nafarroarako interesgarria den estatistika publikoaren jarduera zuzendu, koordinatu eta sustatzea.

Halaber, aholku organo bat ere sortu da, Nafarroako Estatistika Kontseilua hain zuzen. Horren eginkizuna da informazio estatistikoaren ekoizleen arteko harremanak eta horien eta informazioaren erabiltzaileen artekoak erraztea.

III. Tituluaren gaia da Nafarroako toki entitateen estatistika unitateena.

IV. Tituluan zehazten da Foru Lege honetan ezarritako arauak eta betebeharrak betetzen ez dituztenei dagokien arau-hauste eta zehapenen erregimena.

HASIERAKO TITULUA **Xedea eta eremua**

1. artikulua. Xedea.

1. Foru Lege honek Nafarroarako interesgarria den estatistika jarduera publikoa arautzea du xede, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak bere 44.21 artikulua aipatu bezala.

2. Foru Lege honen ondorioetarako:

a) Estatistika jardueratzat hartzen dira estatistikak prestatzeko datu kuantitatibo edo kualitatiboak biltzea, eskuratzea, tratatzea eta zaintzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko beste edozein ekintza.

b) Estatistika publikotzat hartzen da Administrazio Publikoetako unitateek gauzatutakoa.

c) Nafarroarako interesgarria den estatistika jardueratzat hartzen da Foru Komunitatearen lurraldeari, demografiari, gizarte eta ekonomiari buruzko informazio estatistikoa ematen duena.

2. artikulua. Ezarpen-eremua.

1. Foru Lege hau aplikatuko zaie:

a) Foru Komunitateko Administrazioak, haren erakunde autonomoek eta menpeko ente eta enpresek gauzatutako estatistika jarduerari.

b) Nafarroako toki entitateek, haien erakunde autonomoek, ente eta enpresek gauzatutako estatistika jarduera publikoari, beti ere Foru Komunitaterako interesgarri denean.

2. Foru Lege hau ez zaie aplikatuko:

a) Konstituzioaren 149.1.31 artikulua aipatzen duen helburu estataleko estatistika jarduerari, eta berdin dio delako jarduera Estatuko Administrazio Orokorraren organo eskudunek hitzarmen, itun edo nolanhiko lankidetzaren bidez zuzenean gauzatua izan zein beste edozein entitatek.

b) Foru Lege honen 2.1 artikuluan sartzen ez diren pertsona fisiko nahiz juridiko pribatu edo eskubide publikoak gauzatutako estatistika jarduerari.

c) Nafarroako Estatistika Planaren sartu ez diren hauteskunde zundaketa eta iritzi inkestei.

I. TITULUA **Estatistika jardueraren arauak**

I. KAPITULUA **Printzipio orokorrak**

3. artikulua. Estatistika jardueraren printzipioak.

Foru Lege honek arautzen duen estatistika jarduerak, izaera orokorrean, kontutan hartuko ditu emaitzen interes publikoa, gardentasuna, homogeneotasuna, proportzionaltasuna, zabalkundea eta argitalpena, informazioa gorde eta zaintzea, Administrazio Publikoen arteko lankidetzaren, sekretu estatistikoa izatea eta informazioa eman beharra.

1. atala **Interes publikoa**

4. artikulua. Interes publikoa.

Foru Lege honek arautzen du interes publikoa dela medio garatutako estatistika jardueraren oro. Nafarroako Parlamentuari dagokio estatistika baten interes publikoa neurtu eta kalifikatzea, Nafarroako Estatistika Planaren onspenaren bidez, 28. artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

2. atala **Gardentasuna**

5. artikulua. Gardentasuna.

1. Gardentasun printzipioa aplikatuz estatistika xedea duten datuak ematen dituzten subjektuek eskubidea dute datu horiek babesteko behar adina informazio eskuratzeko, datuok zertan erabiliko diren eta erantzuna nahitaezkoa izan den edo ez jakiteko.

Estatistika jardueraren burutzen duten unitateak beharturik daude informazio hori ematera.

2. Foru Lege honek arautzen duen estatistika eragiketa bakoitzeko galdesorta edo galdeketa orotan agerrarazi beharko dira:

- a) Egiten den estatistika jardueraren ezaugarriak.
- b) Datuen helburu nagusia.
- c) Lankidetzan aritzeko beharra, hala behar denean.
- d) Sekretu estatistikoaren babesa.

3. atala **Homogeneotasuna**

6. artikulua. Homogeneotasuna.

Foru Lege honek arautzen duen estatistika jarduera burutzeko aplikatuko dira estatistika eta lurralde mailako unitate, izen, kode, sailkapen eta definizioen multzo bateratu bat, bai eta estatistika jardueraren homogeneotasuna lortzeko lagun dezakeen beste edozein ezaugarri ere.

Arau horiek Foru Dekretu bidez onetsiko dira eta nahitaez betebeharrekoak izanen dira.

Ezartzen diren unitate, izen, kode, sailkapen eta definizioak bateragarriak izanen dira Estatuko Administrazio Orokorrek eta Europako Batasunak ezarritakoekin, datuak homogeneoak eta alderagarriak izan daitezten.

4. atala **Proporzionaltasuna**

7. artikulua. Proporzionaltasuna.

Foru Lege honek arautzen dituen estatistika jardueretakoren bat gauzatu behar duen edozein unitatek proporzionaltasun printzipioa aplikatu beharko du lortu nahi diren emaitzen eta eskatzen den informazioaren izaera eta tamainaren artean.

5. atala **Emaitzen zabalkundea eta argitalpena**

8. artikulua. Zabalkunde estatistikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa berak burutzen dituen estatistika jardueraren emaitzen zabalkundeaz arduratuko da, eta orobat, argitaratzen ez diren emaitzak erabiltzaileen esku izan daitezten behar diren baliabideak jartzeaz. Arlo honetan ere irizpideak izanen dira interes publikoa, kostuen arrazionaltasuna eta legeak errespetatzea.

9. artikulua. Estatistika ofizialen argitalpena.

Foru Lege honen ondorioetarako, estatistika ofizialtzat hartuko dira Nafarroako Estatistika Planean sartutakoak eta Foru Dekretu baten indarrez gauzatutakoak, Foru Lege honen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Estatistika ofizialen emaitzak argitaratu eginen dira eta inpartzialki eta modu zabalean hedatuko dira, beti ere, datu gehigarriak emanez, eta datu indibidualak aipatzeke, sekretu estatistikoari buruz Foru Lege honetan araututakoari jarraikiz.

10. artikulua. Emaitzen ofizialtasuna.

Edozein estatistika ofizialen emaitzak ofizialak izanen dira argitalpenetan edo bestelako euskarrietan argitaratzen diren unetik aurrera.

Foru Lege honek araututako estatistika jarduerak burutzen dituzten unitateei atxikitako langileek eta unitate horiekin akordioak, hitzarmenak edo kontratuak direla medio lankidetzan jarduten duten pertsona fisiko nahiz juridikoek beren lan profesionala dela eta, emaitzak argitaratu arte erabat isilean gorde beharko dituzte, non ez duen unitate estatistikoaren arduradun nagusiak berriazko baimena ematen. Isilpean gordetze hori sekretu estatistikoa betetzetik heldu diren betebeharretik apartekoa da.

11. artikulua. Metodologiaren argitalpena.

Eragiketa estatistiko baten emaitzak argitaratzearekin batera argitaratuko dira, halaber, emaitza horiek lortzeko erabilitako metodologiaren ezaugarriak ere.

12. artikulua. Ustiapen bereziak.

Eragiketa estatistiko bat prestatzen duen Foru Komunitateko Administrazioaren unitateak, dituen baliabideei egokitutako epean eta arauz onetsiko den prozesu baten bidez, argitaratu diren informazio estatistikoez gainera beste batzuk ere eman beharko ditu, estatistikaren ezaugarri teknikoek horretarako bide ematen badute eta sekretu estatistikoa hausten ez bada. Eskatzen den zerbitzu horri dagokion prezioa jarri ahalko da.

6. atala **Informazioa gorde eta zaintzea**

13. artikulua. Informazioa gorde eta zaintzea.

Estatistika unitateek estatistikak prestatzeko bildutako informaziorako galdesortak eta bestelako euskarriak gorde eta zainduko dituzte, horien beharra den artean, eta Foru Lege honen printzipioak bermatzeko segurtasun neurriak hartu beharko dituzte.

7. atala**Administrazio Publikoen arteko lankidetzak**

14. artikulua. Administrazio Publikoen arteko lankidetzak.

Eragiketa estatistikoan baliabide publikoak hobeki erabiltzearen, Nafarroako Foru Komunitatearen estatistika sistemak, bere eskumenen esparruan, Udalbatzekiko lankidetzak sustatu eta bultzatuko du, bai eta Estatuko Administrazio Orokorren estatistika sistemarekin, Komunitate Autonomoetakoekin, Europako Batasunarekin eta beste Erakundeekin, estatistika jardueraren maila guztietan.

8. atala**Sekretu estatistikoa**

15. artikulua. Sekretu estatistikoaren eremua.

Sekretu estatistikoak babestu eta gerizatuak egonen dira pertsona fisiko edo juridikoei dagozkien datu babestuak.

Pertsona fisiko edo juridikoen datu babestuak dira zuzenean interesatuak identifikatzeko bide ematen dutenak edo datuen egitura, edukia edo desagregazio graduengatik zeharkako identifikaziorako bide ematen dutenak.

16. artikulua. Sekretu estatistikoaren edukia.

Sekretu estatistikoak estatistika jardueran ari diren unitateei debekatzen die aurreko artikulua aipatzen dituen datu babestuak -estatistika jardueraren ondorioz ezagutzen direnak- hedatzea edo adieraztea. Era berean behartuak daude eza-gupen horretaz ez baliatzeraz.

17. artikulua. Unitate estatistikoaren arteko komunikazioa.

Sekretu estatistikoaren babespeko datu estatistikoak administrazio publikoen estatistika organoei eskurarazten ahal zaizkie, ondoren zehazten diren baldintzak, datuak zaintzen dituen unitate estatistikoak ikuskatuta, betetzen badira:

1. Aipatu unitateak batez ere eginkizun estatistikoetan jardutea eta indarra duen legezko arautegiak espreski sekretu estatistikoari lotutakotzat hartuak izatea.

2. Igorri behar den informazioak benetako lotura izatea aipatu unitateen esku utzi diren eginkizun estatistikoekin.

3. Unitate estatistiko destinatarioek behar diren baliabideak izatea sekretu estatistikoak gordetze-ko.

18. artikulua. Xede zientifikoetarako komunikazioa.

Ikerketa zientifikoaren institutuak eta ikertzaileek zilegi izanen dute sekretu estatistikoak babestutako datuak erabiltzea, datu horiek zuzenean identifikaziorako bidea ematen ez badute eta instituzio nahiz pertsona horiek datu babestuen babes fisiko eta informatikoa bermatzeko eta dibulgazio ez-zilegizkorako edozein arriskutik saihesteko araubidez ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte. Datuak erabiltzeko tenorean horren berri eman beharko zaio Datuak Babesteko Agentziari edo Nafarroako Foru Komunitatean dagoen organoari.

19. artikulua. Sekretu estatistikoak babestutako datuen erabilpena.

Debekatua dago sekretu estatistikoak babestutako datuak erabiltzea estatistikaz kanpoko xedetarako, legez aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

20. artikulua. Sekretu estatistikoak gorde behar dutenak.

Sekretu estatistikoak gordetzera behartuta daude ondoko hauek:

1. Estatistika jardueran ari diren Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzu edo unitateei lotutako langileak eta Nafarroako Foru Komunitaterako interesgarri diren estatistika jardueretan ari diren toki entitateetako zerbitzu edo unitateetako langileak, beren eginkizunak bukatu ondotik ere.

2. Zernahi kontratu, akordio edo hitzarmen motaren medioz prozesu estatistikoaren edozein fasetan parte hartu dutela eta, sekretu estatistikoak babestutako datuen berri duten pertsona oro, fisiko nahiz juridikoak. Sekretu estatistikoak gorde beharrak iraun egiten du sekretua gordetzera behartuak dauden pertsonen estatistika zerbitzuekiko lotura bukatu badute ere. Sekretu estatistikoak gorde beharra babestutako informazioa eskuratzeko den une berean hasiko da.

21. artikulua. Sekretu estatistikoak ez betetzea.

Sekretu estatistikoak betetzen ez bada horrek sortutako kalteengatik egokitzen diren ordainei erantzun beharko zaie, ordenamendu juridikoan ezarritako eran, funtzionario eta gainerako langile publikoei eska dakizkiekeen erantzukizun penal edo disziplinarioak eta Foru Lege honen IV. Tituluak aipatzen duen zehapen ahalmena deusetan galarazi gabe.

22. artikulua. Sekretu estatistikoaren salbuespenak.

Sekretu estatistikoaren babesetik at gelditzen dira:

1. Jendeak ezagutzen duen eta pertsonen intimitatea ukitzen ez duen babestutako edozein datu.

2. Administrazioaren erregistroetan eskuratutako edozein datu. Horrelakoetan aplikagarri diren lege bereziek zehazten dituzten konfidentzialtasuna eta hedapen irizpideak gorde beharko dira.

3. Izena, identifikatzaileak, tokia, jarduera erakusleak, tamaina eta bestelako ezaugarri orokorrak bezalako datuak, hedapen orokorreko erregistroetan edo direktorioetan sartu ohi direnak, besterik ez dituzten direktorioak.

4. Identifikatzaileak, tokia, unitate mota eta bestelako ezaugarri orokorrak bezalako datuak, hedapen orokorreko erregistroetan edo direktorioetan sartu ohi direnak, besterik ez dituzten eraikin eta etxebizitzetarako buruzko direktorioak.

5. Datu babestuak, interesatuak idatziz adierazten duenean sekretu estatistikoaren babesari uko egiten diola.

6. Duela hogeita bost urte baino gehiago hil ziren pertsona fisikoen gaineko datu babestuak.

7. Unitate estatistikoetan duela hamabost urte baino gehiago jasotako pertsona juridikoen gaineko datu babestuak.

8. Unitate estatistikoetan duela berrogeita hamar urte baino gehiago jasotako pertsona fisikoen datu babestuak.

9. atala

Informazioa derrigorrez eman beharra

23. artikulua. Derrigorrez erantzun beharreko estatistikak.

1. Derrigorrez erantzun beharreko estatistikak izanen dira Nafarroako Estatistika Planean eta Estatistikako Urteko Programetan halaxe espresuki zehazten direnak eta, Planean edo Programan sartuak egon ez arren, Foru Dekretu bidez onetsiak eta halakotzat kalifikatu direnak.

2. Derrigorrez erantzun beharreko estatistikak izanen dira, halaber, xede estatalerako gauzatzen direnak, dagokion legeriaren arabera derrigorrez erantzutekoak direla deklaraturakoak, horien gainean Nafarroako Foru Komunitateak lankidetzak akordioak edo hitzarmenak sinatzen dituenean Estatuko Administrazio Orokorrarekin.

3. Derrigorrezko elkarlanaren menpe ez dira egonen Espainiako Konstituzioaren 16.2 eta 18.1 artikuluek aipatzen dituzten datu eskuraketak. Kasu horietan elkarlana borondatezkoa izanen da beti.

24. artikulua. Informazioa ematera behartuta dauden pertsonak.

Aurreko artikuluan zehaztu estatistika jardueretan ari den unitateari informazioa ematera behartuta daude Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean bizilekua edo helbidea izan edo jardueraren batean ari diren pertsona fisiko nahiz juridiko, publiko edo pribatu guztiak. Betebehar hori heda daiteke Nafarroatik kanpora egiten diren jardueretara, estatistikaren xederako egoki denean eta haren arau erregulatzailean halaxe aurreikusita dagoenean.

25. artikulua. Informazioa emateko modua.

Foru Lege honek araututako jardueren esparruan informazioa ematen duen pertsona fisiko nahiz juridiko, publiko edo pribatu orok egiaz eta oso-osorik erantzun beharko du, erantzuteko jarrিতako epean, eta estatistika jardueren arau erregulatzaileetan agertzen diren gainerako xehetasunak errespetatu beharko ditu.

II. KAPITULUA

Estatistika jardueraren plangintza

26. artikulua. Nafarroako Estatistika Plana.

1. Nafarroarako interesgarria den estatistika jarduera publikoa sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna Nafarroako Estatistika Plana izanen da.

2. Nafarroako Estatistika Plana Foru Lege baten bidez onetsiko da.

3. Plan horrek lau urteko indarraldia izanen du, edo beste edozein Foru Legean bertan horrela adierazten bada, eta Plan bakoitza luzatu egingen da harik eta ondorengoa indarrean jarri arte. Luzapen mekanismoei ez zaizkie lotuko erroldak eta beste eragiketa batzuk, horiek sartzeari edo ez sartzeari hasteko edo amaitzeko ezarritako aldien edo epearen menpe baldin badago.

4. Plan horrek gutxienez hauek bilduko ditu:

a) Planaren helburu nagusien eta Plan horretan aurreikusitako estatistika jardueraren helburu berezien zehaztapena.

b) Estatistika arloan izan beharreko instituzioen arteko lankidetzak.

c) Plana burutzeko irizpideak eta lehentasunak.

27. artikulua. Estatistikako Urteko Programak.

1. Nafarroako Estatistika Plana Estatistikako Urteko Programen bidez garatuko da. Programa horiek Gobernuak onetsiko ditu Nafarroako Estatistika Institutua zein Departamenturi atxikitzen zaion, bertako kontseilariak proposatuta.

2. Estatistikako Urteko Programak ondoko zehaztapenak bederen bildu beharko ditu:

a) Nafarroako Estatistika Planari egokitzea.

b) Egiten ari diren eragiketa estatistikoen eta bere indarraldian zehar eginen diren eragiketa berrien zerrenda, honakoak adieraziz:

– Haien edukia eta helburua, xehetasun teknikoak eta hedapenerako irizpideak.

– Lan hori zein unitate edo zerbitzuek egin behar duen.

– Laguntza eman beharra, hala eskatzen denean.

– eragiketen kostu balioetsia.

c) Agerraraziko dira Nafarroako Foru Komunitatearen eta beste administrazio edo erakundeen arteko hitzarmen edo akordioetan sortutako eragiketak.

3. Estatistikako Urteko Programa Aurrekontuei buruzko Foru Legean sartuko da. Foru Lege horren bidez bideratuko dira ekitaldi bakoitzari dagokion Urteko Programa burutzeko behar diren baliabide guztiak.

Estatistikako Urteko Programa besterik gabe luzatuko da Urteko Aurrekontua luzatzen bada.

28. artikulua. Beste estatistika batzuk.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa edozer dela ere, Nafarroako Gobernuak, hala komeni denean edo presakoa baldin bada, Foru Dekretu bidez baimena eman dezake Estatistika Planean edo Urteko Programan jasotzen ez diren eragiketa estatistikokoak egin daitezen. Estatistika horiek ofizialtzat joko dira.

2. Foru Komunitateko Administrazioaren unitateek, beren beharretarako, Estatistika Planean edo Urteko Programan sartzan ez diren eragiketa estatistikokoak buru ditzakete, Foru Lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ezartzen diren printzipioak eta arauak betez, beti ere.

Eragiketa estatistiko horiek pertsona fisiko nahiz juridikoei informazioa eskatu beharra dakartenean, beren eginkizunei tokatzen zaizkien harreman administrazioetatik aparte, horretarako Foru Komunitateko estatistika organoaren alde

aurreko eta aginduzko txostena beharko dute, bikoiztasunik gerta ez dadin eta behar den koordinazioa segurtatzearen.

II. TITULUA**Nafarroako Estatistika Sistema****I. KAPITULUA****Xedapen orokorrak****29. artikulua.** Nafarroako Estatistika Sistema.

1. Nafarroako Foru Komunitateko estatistika jarduera Nafarroako Estatistika Sistemak Foru Lege honetan ezarritako moduan gauzatuko da.

Nafarroako Estatistika Sistema osatzen dute ondoan ematen diren unitateek eta berauen jarduera koordinatzeko haien artean ezartzen diren harremanek.

Estatistika Sistemaren unitateak ondoko hauek dira:

a) Nafarroako Estatistika Institutua.

b) Departamentuetako unitateak eta haien menpean diren organismo, ente edo enpresak, baldin estatistikan jarduten badute.

c) Nafarroako Estatistika Kontseilua.

2. Nafarroako Estatistika Sistemaren unitateak zuzenean jardun dezakete estatistika arloan edota beste administrazio publikoekin eta entitate pribatuekin egindako akordio, hitzarmen edo kontratuen bidez. Horiek guztiak estatistikari dagokionez Foru Lege honen menpean geldituko dira.

3. Estatistika jardueraren planifikazio, normalizazio eta koordinazio teknikoa Nafarroako Estatistika Institutuak bilduko ditu. Produkzio eta zabal-kundekoak, berriz, Estatistika Sistemaren unitateen artean banatuko dira, Foru Lege honetan ezarritakoaren arabera eta bere garaian Nafarroako Estatistika Planak, Urteko Estatistika Planek eta horiek garatzen dituen arautegiak ezarritakoari jarraikiz.

II. KAPITULUA**Nafarroako Estatistika Institutua****30. artikulua.** Izaera eta atxikipena.

1. Nafarroako Estatistika Institutua Nafarroako Foru Komunitatearen estatistika organoa da, Nafarroarako interesgarria den estatistika jardueraren arduraduna.

2. Nafarroako Estatistika Institutuaren izaera eta egitura organikoa Nafarroako Gobernuak definituko ditu Foru Dekretuaren bidez.

3. Nafarroako Estatistika Institutua Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikiko zaio.

31. artikulua. Eginkizunak.

1. Nafarroako Estatistika Institutuaren eginkizunak ondoko hauek dira:

a) Nafarroarako interesgarria den estatistika jarduera publikoa sustatu, zuzendu eta koordinatzea.

b) Nafarroarako interesgarria den estatistika jarduera publikoaren oinarri, xede eta gainerako xehetasunak zabaltzea.

c) Foru Komunitateko Administrazio eta Toki Administrazioetako Estatistika Sistemaren gaineko unitateen lankidetzaz Nafarroako Estatistika Planaren Aurreproiektua egitea.

d) Datuen sailkapenerako eta emaitzen aurkezpenarako kontzeptu, definizio, sailkapen, izen eta kodeei buruzko arauak proposatzea, horien erabilera bultzatzea Nafarroako estatistika jardueran eta koordinazio metodologikoa sustatzea toki erakundeen, komunitate autonomoen, Estatuko Administrazio Orokorraren, Europako Batasunaren eta beste erakundeen estatistika jarduerarekin.

e) Estatistikako Urteko Programetan bere esku uzten diren estatistika eragiketak egitea.

f) Demografia, ekonomia eta gizartearen estatistikari buruzko sistema integratuak burutzea.

g) Estatistika unitateen direktorioak burutzea eta lurralde, populazio, etxebizitza eta jarduera ekonomikoari buruzko oinarriko parametroak eta markoak sortzeko eta eguneratzeko behar diren errolda eragiketak egitea.

h) Estatistika ikerketak eta alor horretan jarduten duten langileen trebakuntza zein lanbide preskakuntza bultzatzea.

i) Foru Komunitatearen Administrazioa ordezkatzeko toki unitate eta erakundeekin, autonomi erakundeekin zein estatuko edo nazioartekoekin izan ditzakeen harremanetan eta estatistika jardueran haiekiko koordinazioa eta elkarlana sustatzea. Ordezkaritza lan horretan departamentuetako laguntza izanen du eta halaxe behar denean haien esku utziko du bere ordezkaritza.

j) Estatistika Sistemaren unitateekin batera sekretu estatistikoa aplikatu eta errespetatu dadin zaintzea.

k) Nafarroari buruzko estatistiken zabalkundea bultzatzea.

l) Estatistika jarduera tresna edo xedetzat hariturik Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzen duen hitzarmen edo akordio proiektu guztiei zein zerbitzu kontratazioei buruzko txostenak, nahitaezkoak, prestatzea.

m) Nafarroako Foru Administrazioaren unitateek gauzatu behar dituzten estatistika eragiketei buruzko txostenak prestatzea, baldin haien ardurako administrazio harremanetatik at diren pertsona fisiko nahiz juridikoei informazioa eskatzea badakarte.

n) Nafarroako Estatistika Planaren barreneko estatistika eragiketak egiteko beharrezko diren erregistroak ukitzen dituzten galdeketa, administrazio prozedura eta informatika aplikazioei buruzko txostenak prestatzea.

o) Foru Lege honek araututako estatistika jarduera burutzen duten unitateek estatistikak egiterakoan erabilitako galdeketa zein metodoen eraginkortasuna neurtzeko ikerketak aurrera eramatea.

p) Legearen barrenean agintzen zaion beste edozein estatistika jarduera.

2. Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu bidez, artikulua honen 1. idazatian araututako eginkizunak gehitu ahalko ditu.

32. artikulua. Baliabide tekniko eta pertsonalak.

Nafarroako Estatistika Institutuak behar diren baliabide tekniko, pertsonal eta ekonomikoak izanen ditu bere eginkizunak garatzeko eta, batez ere, datuen konfidentzialtasuna eraginkortasunez babesteko sekretu estatistikoen bidez.

1. Estatistika jarduerako alor berezietako langile espezializatuak izanen ditu. Horiek hautatzeko nahiz beraien lan egoera arautzeko dagokion legedira joko da.

2. Bere eginkizunak betetzeko baliabide teknikoak eta instalazio egokiak izanen ditu, batipat sekretu estatistikopean dagoen informazioa babesteko.

3. Era autonomoan eta etengabe bere eginkizunak betetzeko baliabide informatikoak izanen ditu.

III. KAPITULUA

Departamentuetako estatistika unitateak

33. artikulua. Departamentuetako estatistika unitateak.

1. Departamentuetako estatistika jardueran diharduten unitateei dagokie beren eginkizunak

betetzeko estatistika informazioa bildu, sortu eta zabaltzea, arreta berezia jarriz administrazio jardueran sortzen diren datuen ustiapen estatistikotan.

Unitate horiei dagokie, halaber, Urteko Estatistika Programetan agintzen zaizkien eragiketa estatistikoen exekuzioa, legez ematen zaien beste edozein estatistika eginkizun eta Foru Lege honen 28.2 artikulua ezartzen duen moduan eginiko beste edozein estatistika jarduera.

2. Departamentuek, beren eskumenen barrenean, Nafarroako Estatistika Institutuarekin lankidetzan jardungo dute ondoko hauetan: Nafarroako Estatistika Planaren eta Urteko Estatistika Planaren prestakuntza, datuen tratamendurako definizio, sailkapen, izendapen eta kodeen normalizazioa eta emaitzen gauzatzea.

3. Departamentuek, beren eskumenen barrenean, arlo estatistikoko hitzarmenak edo akordioak sustatu edo garatu ahalko dituzte beste erakunde publikoekin.

34. artikulua. Departamentuetako estatistika organoak.

Estatistikaren garapena sustatzeko, baliabideak racionalizatzeko eta estatistika jardueran lankidetzaz errazteko Departamentuek unitate bat antola dezakete bertako estatistika organo gisa. Unitate hau, Departamentuaren organo estatistikoa den heinean, estatistikari emana egonen da osorik eta Departamentuaren estatistika jardueraren koordinazioaren erantzule izanen.

Organo honek bere eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izanen du eta Lege honetan ezarritako eran sekretu estatistikoa- ren menpean egonen da, arauz ezarritako baldintzak betetzen baditu. Arauz ezarritako da, orobat, Departamentuetako estatistika organoek sekretu estatistikoa eskubide eta betebeharez jabetzeko prozedura.

35. artikulua. Estatistika jarduerari buruzko memoria.

Departamentu bakoitzak urtero eginen du bere estatistika jarduerari buruzko memoria eta Nafarroako Estatistika Institutura igorriko du.

IV. KAPITULUA

Nafarroako Estatistika Kontseilua

36. artikulua. Izaera eta osaketa.

1. Nafarroako Estatistika Kontseilua Nafarroako Estatistika Sistemaren kontsultarako eta partehartzeko organoa da. Bere xedeak dira estatistika unitateen arteko harremana erraztea eta unitateek

informatzaileekin eta erabiltzaileekin dutena aisetzea.

2. Nafarroako Estatistika Kontseiluan ondoko hauek izanen dira:

a) Kontseiluburua, Nafarroako Estatistika Institutua zein Departamentutan dagoen, bertako titularraren dena.

b) Buruordea, Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria.

c) Nafarroako Estatistika Institutuko funtzionario bat, zuzendariak izendatua, Kontseiluko idazkari lanetan jardungo duena.

d) Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuetako ordezkari bana.

e) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio-ko ordezkari bat.

f) Iruñeko Udaleko ordezkari bat.

g) Estatistikako Institutu Nazionalaren ordezkari bat.

h) Ordezkari gehien duten enpresarioen elkar-teen bi ordezkari.

i) Ordezkari gehien duten sindikatuen bi ordezkari.

j) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkari bat.

k) Gizarte erakundeen bi ordezkari, kontseiluburuak izendatuak.

l) Estatistika arloan nabarmendu diren bi pertsona, kontseiluburuak izendatuak.

37. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako Estatistika Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Estatistika Planei eta Urteko Estatistika Planei buruzko aginduzko txostena egitea.

b) Estatistika unitateen eta informatzaileen arteko harremanei buruzko aholkuak ematea, batez ere sekretu estatistikoa aplikazio praktikoari dagokionean.

c) Nafarroako Gobernuak nahiz edozein kontseilukideek eskatutako gai estatistikoei buruzko txostenak egitea, arauz ezartzen den prozedurari jarraituz.

d) Estatistika alorrean aldeek beren borondatez aurkezten dizkieten auziak ebaztea.

38. artikulua. Baliabideak.

Nafarroako Estatistika Kontseiluak bere jardueran behar dituen baliabideak Nafarroako Estatistika Institutuak emanen dizkio.

III. TITULUA**Harreman estatistikoak toki entitateekin**

39. artikulua. Toki Administrazioen estatistika unitateak.

1. Nafarroako toki entitateen eta hauen menpeko erakunde eta enpresen estatistika unitateek, estatistikan jarduten badute, beren arautegi berezia izanen dute.

2. Nafarroako toki entitateek beren borondatez eta dituzten eskumenen barrenean, Nafarroako Estatistika Planean eta Urteko Estatistika Planetan sartzen diren estatistikak, baita 28.1 artikuluan ezarritakoak ere, burutu eta zabaldu ahalko dituzte.

3. Nafarroako toki entitateek bere intereseko estatistikak Nafarroako Estatistika Planaren aurreproiektuan eta Urteko Estatistika Planetan sartzea eskatu ahalko dute. Eskarari ondoko hauek erantsiko zaizkio: estatistikaren interes publikoari eta ezaugarri teknikoari buruzko txostena, txosten ekonomikoa, finantzaziorako proposamena eta gauzatzeko ardura izanen duen unitatearena.

4. Nafarroako toki entitateek estatistika emana egonen den unitate bat izenda dezakete beren estatistika organo gisa. Estatistika organo hau sekretu estatistikopean egonen da Foru Lege honek ezarritakoaren arabera, baldin erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen baditu.

IV. TITULUA
Zehapen araubidea**40. artikulua.** Arau-hausteak.

Foru Lege honetan edo bera osatzen edo garatzen duten arauetan diren betebeharrak ez betetzea Nafarroako Foru Komunitateko estatistika arloko administrazio arau-haustetzat hartuko da.

41. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.

1. Foru Lege honetan ezarritako arau-hausteen erantzuletzat hartuko dira arau-haustea sortu duen egintza edo omisioa egotzen ahal zaien pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Pertsona juridikoak beren organo, langile edo agenteek egindako arau-hausteen ondorioz ezartzen zaizkien zehapenen erantzule izanen dira.

42. artikulua. Laguntza ematera behartuak daudenen arau-hausteak.

1. Laguntza estadistikoa ematera beharturik dauden pertsona fisiko edo juridikoen arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izanen dira.

2. Arau-hauste arinak izanen dira:

a) Nahitaez eman beharreko informazioa ez ematea, horrek kalte larririk sortzen ez badu.

b) Eskatutako informazioa epez kanpo, gezurrezko datuak edo osatugabeak erabiliz edo ezarritako modua ez den beste batez ematea, aurreko ekintza horiek kalte larririk sortzen ez badute.

3. Arau-hauste larriak izanen dira:

a) Nahitaez eman beharreko informazioa ez ematea edo eskatutako informazioa epez kanpo, gezurrezko datuak edo osatugabeak erabiliz edo ezarritako modua ez den beste batez ematea, aurreko ekintza horiek kalte larria sortzen badute.

b) Arau-hauste arinak behin eta berriro errepikatzea.

4. Arau-hauste oso larriak izanen dira:

a) Gezurrezko datuak ematea era engainagarrian, erantzuna borondatezkoa zein nahitaezkoa izan.

b) Arau-hauste larriak behin eta berriro errepikatzea.

43. artikulua. Estatistika jardueran egin daitezkeen arau-hausteak.

1. Foru Lege honek arautzen duen estatistika jardueran diharduten unitateei egozten ahal zaizkien arau-hausteak, bertako langileek egindakoak zein aipatu unitateekin akordio, hitzarmen edo kontratu bidez lankidetzan aritzen diren pertsona fisiko zein juridikoek egindakoak arinak, larriak eta oso larriak izanen dira.

2. Arau-hauste arinak izanen dira:

a) Informazio emaileak era ez-egokian tratatzea.

b) Galde-sortak edo antzeko agiriak osatzera koan bete behar diren arauen berri ez ematea edo arau horiek bere osotasunean ez ematea. Orobat, ez adieraztea ez betetzeak ekartzen ahal dizkien zehapenak.

3. Arau-hauste larriak izanen dira:

a) Arau-hauste arinak behin eta berriro errepikatzea.

b) Estatistika arloan onetsitako arau teknikoak ez betetzea.

c) Estatistikako langilearen izaera egiaztatzen duen agiria ez erakustea halaxe eskatzen duen informatzaileari.

4. Arau-hauste oso larriak izanen dira:

a) Arau-hauste larriak behin eta berriro errepi-katzea.

b) Sekretu estatistikoaren babespean diren datuak jakiteko baimenik ez duten pertsoneri zabaltzea edo aditzera ematea.

c) Datu estatistikoak xede ez-estatistikoetarako erabiltzea.

d) Informazioa emanaraztea derrigor, horretara behartua ez egonik ere.

e) Emaitzak zabaltzea ofizialki jendaurrera atera ez direnean edo dagokion unitate estatistiko arduradunaren baimenik gabe.

44. artikulua. Zehapenen zenbatekoa.

1. Arau-hauste arinek gehienez ere 100.000 pezetako isuna izanen dute.

2. Arau-hauste larriek 100.001 pezetatik 500.000 pezeta arteko isuna izanen dute.

3. Arau-hauste oso larriek 500.001 pezetatik 5.000.000 pezeta arteko isuna izanen dute.

4. Arau-haustea etekin ekonomikoa lortzen duen hutsegiteen kasuan, lortutako etekinaren halako biko zehapena jarri ahalko zaie.

5. Aurreko idazatietan ezarritako zehapenen zenbatekoak graduatuko dira kontuan harturik kasu bakoitzean arau-haustearen larritasuna, egindako kalte-galeren izaera eta arau-haustea lehenago erakutsi duten jokabidea, aldez aurretik zehapena kalifikatzerakoan kontuan hartu ez bada, behinik behin.

6. Arau-hausteak funtzionario publikoek edo Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko lan-kontratadunek eginak badira, artikulua honetan ezarritako zehapenak ez dira aplikatuko, aurreko idazatietan aurreikusitakoa deusetan gutxietsi gabe. Direlako arau-hausteak kasu bakoitzean aplikagarria den legeria berezian araututako zehapen erregimenaren menpean geldituko dira.

45. artikulua. Zehatzeko nahitaezko baldintza.

Foru Lege honen 42 eta 43. artikuluetan biltzen diren arau-hausteen ondoriozko zehapenak ezarriko dira izandako jokabidea legeaz arau-haustea gisa aurreikusi denean soil-soilik.

46. artikulua. Ahalmena eta zehapen prozedurak.

1. 42.2 eta 43.1 artikuluek aipatzen dituzten arau-hausteen zehapenak Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendariak ezarriko ditu. 42. artikulua-ren 3. idazatiak eta 42. artikulua-ren 2. idazatiak aipatzen dituzten zehapenak Nafarroako Estatistika Institutua zein Departamentutan den, bertako titularrak jarriko ditu. 42. artikulua-ren 4. idazatiak eta 43. artikulua-ren 3. idazatiak aipatzen dituzten zehapenak Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu.

2. Zehapenak jarri, Nafarroako Foru Komunitatean zehapen prozedura garatzen duten arauetan ezarritakoari jarraikiz jarriko dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiondako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera.

47. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hauste arinak urte baten buruan preskribituko dira, larriak bi urteren buruan eta oso larriak bost urteren buruan, egin zirenetik kontatzen hasita.

48. artikulua. Beste erantzukizunak.

Titulu honetan aipatzen diren administrazio zehapenak ezarriko dira aurki daitezkeen beste erantzukizun zibil edo beste gisakoien kaltetan izan gabe.

Xedapen Gehigarria

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege honetan aurreikusitako zigorraren zenbatekoa urtero berraztertzeko, Kontsumorako Prezioen Indize Orokorrean izandako aldaketei egokitzearren.

Xedapen Iragankorrak

Lehenena. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak estatistika alorrean aldez aurretik sinatutako hitzarmen edo akordioek beren arautegiari jarraituko diote.

Bigarrena. Estatistika Plan bat, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa, ez dagoen bitartean, estatistika jardueren aurrekontua -eta zehazki Nafarroako Estatistika Institutuarena- ohiko prozeduraren bidez finkatuko da.

Xedapen Indargabetzailea

Indarririk gabe gelditzen dira Foru Lege honetan aurreikusitakoaren kontrako maila bereko edo beheragoko zehapen guztiak.

Azken Xedapenak

Lehena. Foru Lege honek indarra hartzen duenetik gehienez ere bi urteko epean, Gobernuak Nafarroako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartzen duenetik gehienez ere sei hilabeteko epean, Nafarroako Estatistikako Institutuaren izaera eta egitura organikoari buruzko Foru Dekretua onetsiko da, Foru Lege honi egokitzearen.

Hirugarrena. Foru Lege honek indarra hartzen duenetik gehienez ere sei hilabeteko epean, Gobernuak Nafarroako Estatistika Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamenduaren Erregelamendua onetsiko du. Urtebeteko epea baino lehen osatuko da Nafarroako Estatistika Kontseilua.

Laugarrena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoarekin bat, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetan zenbait gorabehera izan dira azken honetan, inbertsioen birprogramazioaren ondorioz. Horrek ekarri du gastuen aurrekontuetako bi sailletako dotazioa handitu beharra.

Horrenbestez, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu-osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

1. artikulua. 180.000.000 pezetako kreditu-osagarri bat eman da Osasun Departamentuaren

beharrei erantzuteko. Osagarri hori aplikatuko zaie aurrekontuetako ondoko kontusailiei:

- 52300-7600-4122 kontusaila, 44000 proiektua, 90002-9 lerroa, "Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta horietarako ekipamendua erosteko transferentziak" izenekoak: 15.000.000 pezeta.

- 52230-6057-4127 kontusaila, 41001 proiektua, 95021-2 lerroa, "Ekipamendu medikoa" izenekoak: 165.000.000 pezeta.

2. artikulua. Kreditu-osagarri horren finantzazioa aurrekontuetako honako kontusailetan dagoen kredituaren kargura egingen da:

- 52230-6020-4127 kontusaila, 41001 proiektua, 95023-9 lerroa, "Zaharberritzeko planeko obrak" izenekoak: 165.000.000 pezeta.

- 52420-6020-4127 kontusaila, 42002 proiektua, 20260-7 lerroa, "Obrak" izenekoak: 15.000.000 pezeta.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoarekin bat, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Osasun Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetan zenbait gorabehera izan dira azken honetan, 1996ko ekitaldiko defizitaren ondorioz. Horrenbestez, aurrekontuetako dotazio batzuetarako ez dago kreditu aski.

Gauzak horrela, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu-osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

1. artikulua. 389.085.000 pezetako kreditu-osagarri bat eman da Osasun Departamentuaren beharrei erantzuteko. Osagarri hori aplikatuko zaie aurrekontuetako ondoko kontusaili:

- 52201-2216-4126 kontusaila, 41000 proiektua, 17470-0 lerroa, "Kontsumoko osasun materiala" izenekoa: 2.137.000 pezeta.

- 52201-2276-4126 kontusaila, 41000 proiektua, 17520-0 lerroa, "Plasma zatikatze lanak" izenekoa: 31.458.000 pezeta.

- 52230-2213-4121 kontusaila, 41001 proiektua, 17770-0 lerroa, "Protesiak" izenekoa: 66.562.000 pezeta.

- 52230-2216-4121 kontusaila, 41001 proiektua, 17830-7 lerroa, "Kontsumoko osasun materiala" izenekoa: 47.488.000 pezeta.

- 52240-2216-4121 kontusaila, 41002 proiektua, 18330-0 lerroa, "Kontsumoko osasun materiala" izenekoa: 48.348.000 pezeta.

- 52250-2213-4121 kontusaila, 41003 proiektua, 18750-0 lerroa, "Protesiak" izenekoa: 88.004.000 pezeta.

- 52250-2169-4121 kontusaila, 41003 proiektua, 18720-9 lerroa, "Bestelako ondasun higigarriak konpondu, mantendu eta zaintzea" izenekoa: 933.000 pezeta.

- 52400-2213-4121 kontusaila, 42001 proiektua, 19610-0 lerroa, "Protesiak" izenekoa: 1.403.000 pezeta.

- 52400-2286-4121 kontusaila, 42001 proiektua, 19800-6 lerroa, "Gai kimikoak eta laborategi-koak" izenekoa: 7.623.000 pezeta.

- 52420-2216-4122 kontusaila, 42002 proiektua, 20080-9 lerroa, "Kontsumoko osasun materiala" izenekoa: 1.869.000 pezeta.

- 52500-2213-4121 kontusaila, 43001 proiektua, 20480-4 lerroa, "Protesiak" izenekoa: 9.474.000 pezeta.

- 52500-2216-4121 kontusaila, 43001 proiektua, 20510-0 lerroa, "Kontsumoko osasun materiala" izenekoa: 23.558.000 pezeta.

- 52300-2120-4122 kontusaila, 44000 proiektua, 21240-8 lerroa, "Ondasun higiezinaren mantentzea" izenekoa: 3.760.000 pezeta.

- 52310-2279-4122 kontusaila, 44001 proiektua, 21780-9 lerroa, "Aho-hortzetako osasunaren programa" izenekoa: 21.042.000 pezeta.

- 52332-2280-4123 kontusaila, 44005 proiektua, 22430-9 lerroa, "Elektrizitatea, ura eta gasa" izenekoa: 1.435.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 45001 proiektua, 22610-7 lerroa, "Oxigenoterapiarako itunak" izenekoa: 24.929.000 pezeta.

- 52202-4809-4112 kontusaila, 45001 proiektua, 22670-0 lerroa, "Protesiak, ortesiak eta elbarrindako ibilgailuak" izenekoa: 8.882.000 pezeta.

2. artikulua. Kreditu-osagarri horren finantzazioa honako kontusaileko dirusarrera handiagoen kontura egingen da: 11400-8700 kontusaila, 12000 proiektua, 34695-9 lerroa, "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izenekoa, 389.085.000 pezeta egin arte.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarrirei buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Nafarroako hezkuntzaren eraberritzea arautzeko oinarrirei buruzko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 1997ko

maiatzaren 26ko 37 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkar-guena» Parlamentari Taldeak aurkeztutako ingurugiroa babestu eta hobetzeko jardueri zerga-pizgarriak emateari buruzko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Propo-

samen hori 1997ko ekainaren 2ko 40 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkar-guena» Parlamentari Taldeak aurkeztutako hurrengo Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen: Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko Foru

Lege proposamena. Proposamen hori 1997ko ekainaren 2ko 40 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena, Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, "Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko ebazpena", 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko

1. Nafarroako Parlamentuak sustengu tinkoa ematen dio Fermin Arraiza Puerto Ricoko Abokatuen Elkarteko Burua Estatu Batuetako agintari federalek ezarri nahi duten heriotz zigorraren aurka egiten ari den kanpainari.

2. Puerto Ricoko Abokatuen Elkarteari, Puerto Ricoko Parlamentuari, Estatu Batuetako Presidenteari eta Estatu Batuek Puerto Ricon duten Auzitegi Federaleko Buruari erabaki honen berri ematea.

Ebazpena, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkurak hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala". Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala

1. Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzea: bere erabakia atzera bota dezala eta Nafarroako Parlamentuak eman dion agindua, aborto bat egiteagatik kondenaturiko bi medikuentzako indultua eskatzea, alegia, bete dezala.

2. Hitz eman arren, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuko gehiengoaren erabakia betetzera beharturik sentitu gabe hartu zuen erabakia gaitzetsi eta arbuizatzea.

3. Parlamentu honek gizabanakoen askatasunen defentsan duen konpromezua eta gai hauei buruz Estatuko Parlamentuan aurkeztu diren ekimenen aldeko jarrera agerian uztea.

Mozioa, Tuterako Nafarroako Jaialdien programaziotik at utzi dutelako haserrea agertzeko

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Tuterako Nafarroako Jaialdien programaziotik at utzi dutelako haserrea agertzeko aurkeztutako mozioa baztertu egin zuen. Mozio hori 1997ko ekainaren 23ko 47 zk.ko

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Historia Naturaleko Museoa jartzeko eraikinen bat egokitu dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Historia Naturaleko Museoa jartzeko eraikinen bat egokitu dezan, baztertu egin zuen. Mozio hori 1997ko

ekainaren 23ko 47 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Irunberriko ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat ireki dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Irunberriko ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat ireki dezan, baztertu egin zuen. Mozio hori 1997ko ekainaren 23ko 47 zk.ko Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Saila:
GALDERAK

Haritzak markatu eta botatzeko irizpideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak haritzak markatu eta botatzeko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 23a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Hau izenpetzen duen Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna eskatuz, zuhaitz markazioari eta mozketari buruz egindako galderak direla-eta, honako erantzun hau ematen du:

1. Nork ematen duen baimena, eta zer irizpideren arabera, zuhaitz horiek markatu eta botatzeko, jakinik, gainera, auzoen beharrianak asetzeko horrelakorik behar ez dela, zuhaitz horiek bota gabe ere nahikoa egur badelako.

Galdeanoko Kontzejuak egindako eskaera ikusirik, Oihan Antolamenduko Ataleko langileek, basoari baino ez dagozkion irizpideak erabiliz, udalari honetan egurra egiteko aukerak aztertze-ari ekin zioten.

Honela, bakanketaren bidez mozteko 47 haritz-oin aukeratu ziren, 86 tona egur ematen zituztenak. Berrogeita zazpi oin hauetatik, erdia baino gehiago haizeak botatakoa zen, eta gaine-rakoak hutsik edo ustelduta zeuden.

Zuhaitz hilak edo zaharkituak ziren, alegia, eta ez da harrizkoa egurra egiteko erabiltzea.

Horrez gain, zuhaitzak moztu diren eremuan gutxi gorabehera zeuden oinen ehuneko hogeik kendu dira, indartsuenak gordez. Mozketan hektarea bakoitzeko 12-14 zuhaitz sartu dira, eta horrek ez du eragin handirik basoaren multzoan. Erantsi behar da, azkenik, egurra aprobetxatu den eremuan oihantze naturala dagoela, eta beraz basoaren iraupena ziurtaturik dago.

Egurra ematean egindako aktan, Kontzejuak onartu egin zuen eta ez zen inolako kexurik azaldu.

Argi dago, beraz, Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Oihan Antolamenduko Atalak egurra mozteko emandako baimenak, oihanari nahiz basoaren iraupenari dagozkien ikuspuntuetatik begiraturik, irizpide egokiak izan dituela.

2. Nork ezarri behar dituen zuhaitzak botatzeko irizpideak, baso zaindaria bakarrik aurkitu ez dadin auzoen aurrean arrazoiak ematerakoan, edo batzuetan, haien aurka ere.

Zur eta egur aprobetxamenduetarako irizpideak Natura Zaintzeko Zerbitzuko Zuzendaritzatik ematen dira eta Oihan Antolamenduko Ataleko eskualdeetako teknikarien bitartez transmititzen dira, hauek baitira harremanetarako kontaktua eta erreferentzia bertako langileentzat (basozainak eta basozainordeak). Azken hauek beti izaten dute beren jarduerak ikuskatzen dituen teknikari baten laguntza.

Nolanahi ere, eskualde bakoitzean dituztenez gain, irizpideak legez eta erregelamenduz aprobetxamendu mota bakoitzerako edo oihan jarduera bakoitzerako ezarritakoak dira.

3. Zer neurri hartuko den antzekorik gerta ez dadin.

Ez da uste Galdeanon gertatutakoa berriro gertatzea ekidin edo saihestu behar den egoera denik. Egia da eroritako zuhaitzek, zaharkitutakoe-
ek edo gaiso daudenek garrantzizko funtzio ekolo-

gikoa bete dezaketela, baina, beste kasu batzuetan etxeetarako egurra bilakatuz eta beren zikloa bukatuz bete dezakete beren funtzioa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulak eta hurrengoek xedatutakoa betez

honen berri ematen dizut.

Iruñean, 1997ko apirilaren 17an

Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia

Gainditu dutenen zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren Epaimahaiak, 1997ko ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen, deialdiaren 7.1 Oinarriarekin bat, Biltzarreko Mahaiari izangaien zerrenda bidaltzea, Merezimenduen Baremoan lortutako puntazioaren arabera.

– Mikel Iriarte Cilveti jn..... 10,57 puntu

Aipatu proposamena ikusita, Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin erabakitzen dut.

Iruñea, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdian akats bat ikusita, deialdi horren akats zuzenketa baten bidez konpontzen da. Deialdi hori 1997ko ekainaren 9ko 42 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 1997ko ekainaren 18ko 73 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

I. eranskinean, Merezimenduen Baremoan, 2.a) puntuan, "goi-mailako teknikari lanpostuan" esaten den tokian "erdi mailako teknikari lanpostuan" esan behar du.

Iruñea, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000)

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 1997ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Etxebizitza Plana (1997-2000) onetsi zuen, ondoko ebazpen proposamenak sartuz:

1.- 2. orrialdeko bigarren paragrafoaren bukaeraren ondoko esaldi hau eranstea:

“Ebaluaketa honetan Nafarroa osorako etxebizitza beharren azterketa egitea sartuko da”.

2.- 5.1.1. “Etxebizitza berria” puntuko 2. atalaren 2. paragrafoan, lurzoru publikoaren esleipenari dagokionean, ondoko esaldia eranstea:

“Eta metro karratu erabilgarriaren prezioa moduluaren azpitik aurkezten duen sustatzailearen eskaintza aintzat hartuko da, kalitaterik galdugabe beti ere”.

3.- “Etxebizitza bat lortzeko zailtasunak dituzten gazteen eskaera dago, Planak erabat betetzen ez duena. Eskaera honek emantzipazioaren lehenengo urteetan alokairu mugatuko alokeraren beharra dakar, bitartean zama gaindiezina izan gabe babeseko etxe bat erosi ahal izateko dirua bil dezaten.

Horretarako, alokatutako etxebizitzetarako dagokienez, laguntza mota berri bat sortzea proposatzen da, dirusarrera mugatuak dituzten pertsonen zuzendutakoa, batez ere gazteei, etxebizitza txikiagotan, baina haien beharretarako egokiak (<70 metro koadro), eta alokairua ez dadila gehienezko salmenta prezioaren %5 baino gehiagokoa izan, errentariari dirulaguntzik eman gabe eta gehienez bost urteko iraupenarekin. Horretarako sustatzaileari laguntza hauek emango zaizkio: etxebizitzaren eta honen eranskinen prezioaren %25eko dirulaguntza, korritu tipoa %4raino laguntzea, maileruak etxebizitzaren prezioaren %75 estaliz. Babes Ofizialeko Etxebizitzaren moduluaren bilakaeraren arabera egingo da errentaren gaurkotzea. Deskalkifikazioa 20 urtekoa izango da eta 50etik 75 urtera bitarteko itzultzeko epea izango da, azale-

rako eskubide lagapen erregimenean eraiki baldin bada.

“Alokairu gaztea” dei daitekeen etxebizitza mota honen hornidura Planean sartzen den denboraldirako 400 etxebizitzena izanen da. Etxebizitza hauek Planak denboraldi honetan alokeran planteatzen dituen 1.000 etxebizitzetara gehituko zaizkie. Azken hauek ia beren osotasunean etxebizitza bat erosteko behar den 1/7ra iristen ez diren eta errenta-laguntzaren bat behar dutenez, izango dira”.

4.- “Etxebizitzaren prezioaren 1/7ra iristen ez direnek etxebizitza bat izatea ahalbidetzeko, alokeran egoteko aukera dago Planean. Alokera erregimen honetan 1.000 etxebizitza izanen dira Planaren iraunaldian. Hauei gazteentzako alokerako 400 etxebizitzak gehituko zaizkie.

Eskaeren parte handi bat konpontzea ahalbidetuko duen eginahal garrantzitsua dela aitortzen badugu ere, uste dugu ez dela nahikoa, eta beraz, Gobernua abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeko 10. artikuluan G) hizkia erregelamenduz gara dezan premiatzea proposatzen da, aipatutako hizkiari abenduaren 9ko 22/1994 Foru Legeak ematen dion erredakzioan, honako hau dioena: “Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena izenpeturik, gizarteratzea egitarau edo ekintzetan laguntzen duten irabazi asmorik gabeko entitateak Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen alguntza berezien onuradun izan daitezke, entitate haiek 6 bis artikuluan aipatzen den motako etxebizitzak eskura ahal ditzaten, horiek alokairurako erabil ditezten Nafarroako gobernuko Etxebizitza Zerbitzuaren ikuskapena beharko dute horren baldintzak”, eta baita 6 bis artikulua ere, irabazi-asmorik gabeko entitateek gizarteratzeko programetan dauden erosleek etxebizitza erabilia eros dezaten laguntzea ondoko baldintzetan ahalbidetzen duena:

* Etxebizitzaren prezioaren %20ko fondo galdurako dirulaguntza.

* Maileguak etxebizitzaren prezioaren %80raino hartuko du eta %3tik aurrera subsidia-tua izanen da”.

5.- Zaharberritzeari buruzko atalean ondoko proposamena sartzea:

“Nafarroako Mendialdean etxebizitzak ezaugarri desberdinak ditu beste eskualde batzuekin alderatuz gero eta uste dugu mantendu behar direla, aldi berean gazteen eta beste batzuen beharrei erantzunez.

Nafarroako eskualde horretan etxebizitzak kontutan hartu beharreko baldintza bereziak ditu:

* Azalera erabilgarria Komunitateko gainerako tokietan baino askoz handiagoa da, sakabanaturiko populatzeari dagokion familia bakarreko habitata bezalako gertaera ondarezko nahiz tradiziozko baten eraginez.

* Jatorrizko populatze-eredua dela-eta, eraikinak gainerako tokietan baino zaharragoak dira.

* Etxebizitza nagusien portzentaia bigarren mailakoaren gainean Komunitatearena baino askoz handiagoa da.

Honela, landa-etxebizitza bat Nafarroako eskualde batean edo bestean zaharberritzearen kostua inoiz ez da berdina.

Etxebizitzak zaharberritzeari buruzko politikan ezarri behar diren laguntza eta baldintza multzoa irizpide zehatzagoez arautzeko justifikaturiko beharra dago.

Nafarroako Mendialdeko lurralde eremuaren barnean zenbait berezitasun aipatu behar ditugu. Honela, bostehun biztanle baino gutxiago dituzten guneeetan oso etxebizitza berri gutxi dago, eta daudenak zaharberritzeko beharra handia da, batez ere egitura-gertaerak eta epe motzean aldatzeko zailtasunak dituztenak direla medio, esate baterako banatzea eta zahartze demografikoa. Honek, Administrazioen jokaerekin batera, baldintza gehiegirik gabe eta laguntzak emateko joera garbia bultzatuko duen etxebizitzak zaharberritzeko lan babestuari ekin beharra premia handiagokoa egiten du.

Honengatik, ondoko neurri hau sartzea proposatzen dugu:

“Zaharberritzeko lehentasunezko eremuen zehaztapena hirikoak baino ez diren guneeetatik harantzago joanen da eta landa guneeetako eraikin tradizionalak kontutan izanen ditu”.

6.- Honako neurri hau sartzea proposatzen da:

“Etxebizitza erosteko aurrezki-kontuak zaharberritzean erabiltzea ahalbidetzea eta, zaharberritze jarduketak modu zabalagoan lagunduz, aurrezki mota hau sustatzea”.

7.- “Alderdi Sozialistak eta Gizarte Ongizate Departamentuak espreski iradokita, 100/97 Foru Dekretuan %30era igo da bitarteko ekonomiko eskasak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak beren etxebizitzak zaharberritzeko duten laguntza. Argi dago laguntza mota hau gehitu beharra, kasu askotan barnetegi erregimeneko instituzioetan sartzea atzeratzen baitu; horregatik, bitarteko ekonomikorik gabeko 65 urtetik gorako pertsonentzako dirulaguntza zaharberritzearen zenbatekoaren %40raino igotzea proposatzen dugu”.

8.- “Alderdi Sozialistak eta Gizarte Ongizate Departamentuak espreski iradokita, 100/97 Foru Dekretuan %30era igo da bitarteko ekonomiko eskasak dituzten pertsona minusbaliatuek beren etxeak zaharberritzeko duten laguntza. Argi dago laguntza mota hau gehitu beharra, kasu askotan barnetegi erregimeneko instituzioetan sartzea atzeratzen baitu; horregatik, bitarteko ekonomikorik gabeko pertsona minusbaliatuentzako dirulaguntza zaharberritzearen zenbatekoaren %40raino igotzea proposatzen dugu”.

9.- “Korrituak laguntzeak dakarren baliabide kopurua kontutan harturik, gaur egun modu nabarmenean jaitsi direnean, beharrezkoa da jaitziera aurreko konpromezuei ere zabaltzea babeseko etxebizitzaren erabiltzaileek onura izan dezaten. Horretarako, Gobernuak finantza-entitateekin hartutako gastu-konpromezua bernegozia dezan, Planean aipamena sartzea proposatzen da.

Administrazioarentzat aipatutako bernegozia-zioak dakarren aurrezki, eta baita etorkizuneko hitzarmenak %6ren inguruan gauzatzen badira emango dena, pertsona behartsuenek etxebizitza eros dezaten eta “alokairu-gaztea” duten etxebizitza kopurua gehitzera zuzenduko dira.

10.- “Etxebizitza Planaren planteamenduek egungo egoera hobetzen dute, baina sustapenean eta etxebizitza lortzeko laguntzetan ez da lehengo mailetara iristen.

Eztabaidaren ondorioz etorkizunean neurriak hartu behar dira, esate baterako:

* Erregimen Berezia eta Erregimen Orokorra gehiago desberdintzea.

* Erregimen Bereziko etxebizitzetarako zergen arloko gaien (BEZ) berrazterketa.

* Beharren azterketa babes ofizialeko etxebizitzari buruzkoak egokitzeari dagokionean”.

11.- VINSAREN papera baldintza berrietara egokitu behar da, baina merkatuan nolabaiteko garrantziaz segitu behar du merkatuaren balizko aldaketek populazioaren sektore behartsuenak babesik gabe utz ez ditzaten.

Lurzoruaren sustapenerako sozietate misto baten ekarpenak interesgarriak dira, baina, eratu eta funtzionatzen hasi arte, beharrezkoa da VINSAREN bitartez jarduten segitzea epe motzean lurzorua izateko berma gisa.

Aurreko legegintzaldietako etxebizitza politikan paper garrantzitsua izan duen sozietate hau beharrezkoa da oraindik merkatua orekatzeko, ekimen pribatuak hartzen ez dituen eskaerei kasu egiteko eta, merkatuaren aldaketen aurrean, gizartearen sektore jakin batzuk babesik gabe gera ez daitezela bermatzeko”.

12.- “Plan honen garapenaren harian, Etxebizitza Departamentuak etxebizitzaren arloan kontsumtzaileen eta erabiltzaileen defentsarako bulego bat sortzea aztertu behar du. Etxebizitzaz gozatzeko eskubideak herritarra inolako defentsarik gabe geratzen den egoerak dakartza praktikan, baita babes ofizialeko etxebizitzak direnean ere.

Erabiltzaileen kalteko iruzurrak gertatzen dira, bai etxebizitzaren prezioan, bai eraikuntza materialetan edo etxea emateko epeetan, etabar. Beren eskubideak gauzatu ezin izateak merkatua eta enpresarien aurrean ezintasun sentrazioa sortzen du, eta Administrazioa ezin da deus egin gabe geratu.”

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikulua xedatutakoa betez, hau argitaratzea agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

| | |
|---|--|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA |
|---|--|